Hemeretzi urte nituela. Aitari esan nionean, ezin sinetsi zuen. Madrila! Baina berak behin baino gehiagotan esana zidan: «Heuk nahi duan unibertsitatean!». Eta hark ezin hitza jan. Eta Madrila, bai, gaztelania askorik ez banekien ere. Complutensen hasi nintzen, espainiar literatura ikasten; huraxe zen aukeratu nuen arloa. Gaztelania eskoletara ere joan nintzen, jakina. Hasieran, gaztelaniaz inorekin hitz egiteko gauza ez nintzenez, irakurri egiten nuen, asko. Dostoievski, Tolstoi, Steinbeck eta beste irakurri nituen; baita On Kixote ere, nahiz eta hilabetea behar izan nuen horretarako, eta hiztegia ondoan! Horrela, zaletu egin nintzen. Dolar batzuk genituen sakelan eta, sasoi hartako Madrilen, aberats bizi ginen amerikar ikasleok. Flamenko ikastaroa ere egin nuen nik orduan. Joaquín Rodríguez ematen zizkigun musika eskolak, adibidez. Kontua da orduantxe egin zitzaidalda argia, gogo intelektuala piztu. 1959ko urte hura gabe ni ez nintzen Renoko Euskal Ikasketen Programa irekitzera helduko. Ez al da aldrebesa?

Espainiar literatura ikastera joan, eta antropologia ikasten bukatu zenuen.

Renon ere jasota nengoen antropologia eskolaren bat edo beste, eta gustatu! Madrilen ere bai, beste kurtsoren bat, eta holaxe. Kontua da Madrildik Renora itzuli nintzeneko,

atzera Iberiara joateko asmotan nintzela. Chicagoko unibertsitatera eskaria bidali eta onartu egin ninduten. Hura herrialde honetako unibertsitate onena zen antropologian. Iberiar Penintsulari buruz irakurtzen hasi nintzen. Caro Baroja, batez ere: Los pueblos de España, Los pueblos del Norte, Los vascos, La vida rural en Vera de Bidasoa... Baita Kataluniari buruzko lanen batzuk ere. Baina Euskal Herria iltzatu zitzaidan. Haraxe joan behar nuela nik sartu zitzaidan kaskoan. Noiz edo noiz, herri hartan egin behar nituela nire ikerketak. Chicagon, gainera, bazen beste irakasle bat, Julian Pitt-Rivers, Caro Barojaren oso laguna. Pitt-Riversek jakin zuenean ikasle gazte batek Euskal Herrira begira zegoela, segituan animatu ninduen.

Etxalarra heldu zinen 1964an. Aulestin zinen 66ko hasieran. 67an, Renoko Euskal Ikasketen Programa abiarazi zenuen...

Ez hortaino azkar –alegia, Amerikatik Euskal Herrira hainbat bidaia eta han egonaldi bat baino gehiago eginda–, baina zuk esan duzun bezala, gutxi gorabehera behintzat. Etxalarra ailegatu ginenean –emaztea, ni bezain gazte; urte bateko haurra, deskuidua; eta hirurok–, ez etxe genuen, ez ikerketa-gairik nuen nik. Lesakako Maria ostatuan egon ginen lehenengo, Etxalarko Buxungoborda etxea fortunatu zitzaigun arte.

Buxungoborda

Etxalarren egon ginenean Buxungobordan bizi ginen, mendian. Volkswagen bat nuen, baina herrian utzi behar izaten nuen, ezinbestean, haraino biderik ez zegoen-eta. Autoa utzi eta mendian gora, ordu erdi bateko bidean, Buxungoraino. Hortaz, abarka pare ona ibili nuen beti aldean. Askotan, gauetz igo behar izaten nuen etxera eta portugaldarrekin egiten nuen topo, muga ezkutuan pasatzen ari ziren haiekin... Hil kanpaiak jotzen ari zen mundu hura. Baserriak husten, mendian gora zeuden herritik aparte, batzuek ez argirik ez bertarainoko kaminorik zuten. Ondoan, ordea, agroturismoaren lehen zantzuak ageri ziren, Bilboko industrialaren txaleta, Donostiako ehiztaria usategiak erabiltzearen dirutza pagatzen zuena... Baserri batzuk mekanizatzen hasi ziren handik pixka batera. Horrela zen. Buxungoborda, berriz, ez dakit, beharbada hutsik dago, nagusia oraintxe lauzpabost urte hil zen-eta... Bitartean, Caro Barojaren lagun egiten hasi nintzen, Pitt-Riversen gomendiozko karta ekarri nuen eta. Jira eta bueltaka, Carorekin hizketan eta Etxalarko jendearen hara-honari begira, konturatu nintzen exodoa zela hango gaia. Bertako asko lrun eta Iruñera ari zen. Beste batzuk, Lesakara joaten ziren lanera. Jende mugimendu hark baserriak hustea ekarria zuen ordurako. Eta horixe aztertzea erabaki nuen. Gero,

azterketak balio handiago izan zezan, Etxalar beste herri txiki batekin konparatu behar nuela iruditu zitzaidan. Eta Aulestira heldu nintzen horrela.

Muerte en Murelaga

Etxalarren nengoela, eta bertako azterketa bukaturik, beste herri baten egoera aztertu behar nuela sartu zitzaidan buruan, konparazio egiteko. Eta, astebetetz, herriz herri ibili nintzen Euskal Herrian, Etxalarren antzeko ezaugarriak zituen herri baten bila. Kontua da Aulesti jo nuela azkenean. Munitibarko Arbatzegiko tabernariak Aulestiko parrokoa-rengana zuzendu ninduen. On Emilio Kortabitate, huraxe omen zen niri komeni zitzaidana. Joan eta, abadeak, ni hartu eta Zubero auzoko Goitiandia baserrira eraman ninduen. Bertako etxeko-jauna Idahon artzaina izana zen, eta artean Idahon bertan zituen seme bi ere. Ondo hartu ninduten, baina, nik uste On Emiliok ez ziela erabakitzen ere utzi. Eta bertan geratu nintzen urte bateko. Gero, On Emiliorekin berriketan, heriotzaren inguruko errituen berri izan nuen, eta haiekek aztertu nituen Muerte en Murelaga-n.

Txepetxa bezala gabiltza, saltokako ibileran, denboran aurrera. 1967an hasi zinen Euskal Ikasketen Programan.

Euskal Ikasketen Programan hasi? Programarik ez zegoen eta! Zertan zen ere ez genekien. Ez zertan zen, ez zer behar zuen izan. Eskaintza egin zidaten, onartu nuen, eta eremuan sartzea bezala izan zen hura. Dena, eta ezer ez. Eta, okerreana, neu buru! Nora nindoan batere ez nekiela. Asmatu egin behar zen. Gaitz erdi, ordurako William Jacobsen irakasleak beka eskatua zion National Science Foundation erakundeari, hizkuntzaren gaineko ikerketa bat egiteko, eta halaxe hasi ginen. Gauza bat izan genuen alde. Ordurako, Robert Laxalt idazlea Donibane-Garazin egona zen, urtebetetz, eta Philippe Veyrin-en lagun egin zen bertan. Veyrin hilzorian zegoen, eta biblioteca Renori salduko ziola hitz eman zion Laxalti. 750en bat liburu. 6.000 dolar ordaindu genituen. Eta Renoko euskal liburutegiaren hazia jarri genuen.

Liburutegia ez ezik, Programa bera ere gorpuztu egin zen.

Uste baino gehiago kostata, ordea. Gure helburua ikerketa zen. Bekak eskatzen genituen, egitasmoak –eta geure soldatak–, ordaintzeko. Zaila izan zen, nekea. Bestalde, euskal jairik euskal jai ibili nintzen Nevadako eta Kaliforniako zenbait herritan, Programaren berri ona kontatzen, eta diru eskatzen. Uste genuen euskal amerikarrek diruz lagunduko zigtela. Baita zera ere! Nik ez nuen 27 urte besterik, gaztea, amerikarra, unibertsitatekoa... sinesgarritasunik ez nuen komunitate haren begien aurrean. Erre ere egin nintzen,

eta Programa, edo dena delakoa –artean ez zen ezer handirik eta–, uztekotan egon nintzen.

Jon Bilbao izan zenuen aingeru guardako...

Ez da gezurra. Antropologo biltzar batean ezagutu nuen, ni Renon lanean hasi berri. Ekialdeko kostan ari zen lanean, Maryland-en, hemen, AEBetan. Batek edo bestek Euskal Ikasketen Programa abiarazteko tentatu zuen, han, non edo non Ekialdeko kostako unibertsitate batean. Jon tentatu zuenak ni neu ere tentatzen saiatu zen. Nik, Renorekin zorretan nengoela esan nien. Bateko, eta besteko, Jon eta biok adiskidetu ginen. Renon hitzaldia egin zezan ere gonbit egin nion, eta hark onartu. Etorri zen, eta jende asko joan zen haren hitzaldira, ehun bat lagun. Eta Programari buruz hasi ginen ametsetan. Hark ideia mordoa zuen beti. Gero, atzera bere lanera itzuli zen, Maryland-a. Handik pixka batera, gure buruari joan nintzaion, esanez Euskal Ikasketen Programarik ez zegoela, ni besterik ez zela Programa. Ez nuela idazkaririk, ez laguntzailerik. Behea jota nengoela, aldegitiko gogoak eta, are, horretarako asmotan. Hark, zer beharko ote nuen bertan geratzeko. Nik, Jon Bilbao nire ondoan izateak ni bertan gera nendin asko lagunduko zuela erantzun nion.

Konta iezaguzu behin edo behin esan izan didazun hori: «Lehen mailako jendeak, lehen mailako jendea kontratatzen du. Bigarren mailakoak, hirugarrenekoa».

Horretaz gogoratzen zara? Baita neu ere. Ez zait egundo ahaztuko. Jon Bilbao ondoan nahi nuela gure departamenduko zuzendariari esan nion bilera hartan, bukaeran, galdera berak: «Zertan ari zara lanean?». Nik, honetan eta hartan, Programaren kontuak adierazi nizkion, dirua biltzeko estrategiak azaldu nizkion. Berak besterik zuen buruan, ordea: «Ez, ez, zeure lanari buruz ari naiz, ikerketari buruz». Erantzun nion gauzez jarduten nuela lanean. Muerte en Murelaga-ren zirriborroa lantzen ari nintzela, irakasle baten oharrak lantzen, argitaratu aurreko. Berak, orduan: «Bada, egunez ere idatzi, egin lan horretan egunez ere. Bukatu zure lana. Gustuko duzun zer edo zertan lan egiten ez baduzu, orduantxe akabo, orduantxe bai alde egingo diguzula». Gogoan hartu nion. Gero, azkenik. «Eta, Jon Bilbao hori? Hortaino ona da?» «Oso ona», nik. Eta, segituan, ginga jarri zion berriketari: «Hobe duzu, hura izango duzu-eta neurria: Jonen arabera epaituko zaitut zeu. Lehen mailako jendeak, lehen mailako jendea kontratatzen du. Bigarren mailakoak, hirugarrenekoa». Betiko gelditu zait akorduan. Egia esan, Jon Bilbao gabe ez dakit nola burutuko ote nukeen Renoko Programa. Harrezkero hasi ginen bide egiten.


Bide handia. Amerikanoak liburua. Australiara ziren euskaldunen gaineko lana.. Euskal Ikasketen Programaren argitalpenak. Euskal Liburutegia... Ikerketa Italian. Hainbat eta hainbat artikulu eta kolaborazio. Kasino-jabea. Laburbiltzen asmatzen ez dudan antropologo eta businessman bizitza bat, oso-oso. Sariak, merezimenduak eta ohoreak. Erretiratu zinen eta...

Bai, erretiratu nintzen eta porrot egin dut horretan, ez nintzen eta erabat erretiratu. Ez nuen asmatu.

Zer esan nahi duzu?

Astean behin baino gehiagotan etortzen naitzela Programara. Orain «Zentroa» da baina. Etxean ere bulegoa daukadan arren. Ikertzen eta idazten segitzen dut. Joseba Zulaika zuzendari eta beti nuen deia edo mezua, galdera, iritzi edo aholku eskea. Gainera, Zentroko Aholku Batzordean sartu ninduten.

Bertako dinosauroa naiz. Zulaikak adarra jotzen zidan. «Museoko ikuskaria» omen naiz. Inor kanpotik etorri eta neuk hartzen ditut. Gainerakoan, arrantzari buruzko liburua argitaratu dut erretiratuz gero: nire ibilerak ez ezik, arrantzari buruzko gogoetak egiten ditut bertan. Turismoari buruzko pare bat artikulu ere ez ditut idatzi zaharrak, kolaborazioan. Batak Euskal Herriko turismoa du aztergai; besteak, aldiz, Las Vegaskoa. Alegia, hau eta hura, eta ezin atertu. Australiara ziren euskaldunen gaineko lana ere idazten ari naiz; beharbada, horixe dut, oraintxe, egiten ari naizen lan akademikorik garrantzizkoena. Honezkero badakit behin ere ez diodala utziko euskal gaiak ikertzeari. Duela hiruzpalau urte Nevadako kasinoetan girotutako nobela idazten hasi nintzen. Hainbat orri eta makina bat koaderno zirriboratu ditut, eta idazten segitzen dut. Nevadako kasino baten bizitza eta heriotza da nobelaren gaia. «Fantasia puru-purua», bistan denez. Erretiroa? Zer erretiro?



Fermin Etxegoienen lehen eleberri honetan mundu garaikidea ageri da, errealismoz erakutsia. Protagonistak lan egiten du herri bateko kooperatiban, eta zenbait tramaren erdian aurkituko du bere burua. Esperientzian oinarrituriko literatura da, egungo familia zein laneko bizipenak jasotzen dituen. Elkarren artean gurutzatzen diren gertakizunek, erritmo bizian kontatuak, irakurlearen arreta hasieratik bereganatuko dute, eta espero ez duen amaierara eramango.

Aspaldion ugaltu diren autokarabana-aleak unibertsaltasunean helmugarik ez daukaten unitate moduan irudikatuak dira... Autokarabana modernitatearen metafora gisa.

Fermin Etxegoien Uribeetxeberria (Oñati, 1966)

Lanbidez kazetaria, egun telebista kritikaz arduratzen da Berria egunkarian. Era berean, «Euskadi Gaztea» irradian Ekaitz Perfektua saioa egiten du, Bilbo Hiria irratiak bost urtez arduratu ostean. Telebistan ere hainbat saiotan ibilia dugu gidolari legez («Katu Kale», «Doctor Livingstone Supongo», «Ciudadanos», «Lau Haizeetara», «Kalaka», «Anitzele»...). 2004an *Neurona* eta *Zeurona* saiakera kale-ratu zuen Pamielan eta 2009an *Autokarabana* eleberria.



Kondagintza 16
Hizkuntza Euskara
2009.urtea
324 or.

ISBN: 978-84-7681-594-6

Bizitzaren erritmo sinkopatua

Narrazioan, ezagutzen dizkiogun ikuskerak eta galderak barreiatzen ditu [Etxegoienek], ongi ere ongi txertatuak kontakizunen bilbean, eta bere ohiko estiloan: erranaldi motzak, paragrafo labur-laburrak, puntu eta aparte zosiak orrialdeak. Inpresio, intuizio, uste, egiaztapen bakoitzari leku nabarmena eman nahian bezala, publizista bati dagokion moduan. Erritmo sinkopatua nagusitzen da irakurketan; ulerterraza hau, eta arina zentzu horretan, baina bere luzeran halako ezinegona sor diezagukeen erritmokoa.

Bixente Serrano Izko. 'Berria'

'Autokarabana' nobelaren garrantziaz

Esan dezagun, existentzialismo cool baten iturritik etorritakoa dela nobelako ur hau. Tarteak tarte, Houellebecq, Roth, Murakami... ekarri dizkigu guri gogora, batzuetan gaiak, bestetan trataerak. Bada zer bait.

Nire ustez bide bat argi markatzen duelako. Esan nahi dut, orain arte antiheroe garaikideak asko izan direla gurean, baina, irakurriak ditudan liburuetan, gai narratibo nagusia ez zen sekula hori izaten. Antiheroiak bazeukan beti beste zeregin bat, edo polizia zen, edo gaizkilea, edo abokatua, edo entomologoa, edota apaiza.

Hasier Etxeberria. 'Zuzeu.com'

Distantziak

Kontaera bizia da eta hurbila. Hizkuntza erabat komunikatiboa darabil Etxegoienek, erregistro markatua. Kaleko hizkera aukeratu du, eta badirudi, batzuetan, lagun arteko kontaera dela, taberna zulo bateko tertulia informal bateko solasaldia. Nork bere arazoak kontatuz girotzen diren horietakoa.

Felipe Juaristi. 'El Diario Vasco'

Auto... biografia?

Herri hizkera erabiltzen du idazleak, zenbaitetan arrunkeriaz mintzo ere, erranen nuke, gizon-nezko ikuspegi batetik gaur egungo euskal gizartea hankaz gora paratzeko, edo gutxienez zer pentsarazteko euskal gizartearen arlo guztiei buruz.

Ainara Maia. 'Gara'.



«Ni kazetaria naiz, eta nobela hau nire lanaren proiektzio naturala da»

Fermin Etxegoieny

J.L.Z.

http://paperekoa.berria.info/plaza/2010-10-26/038/004/euskadi_saria_ere_hartuko_du_barruan_autokarabana_k.htm

Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak egindako deiaren bidez jakin zuen Fermin Etxegoienek, joan den astean, Euskadi Saria jasoko duela.

Ezustean harrapatu zintuen albisteak, ala bazenuen esperantzarik?

Nobela idatzi nuenean, ez nuen inondik ere uste halako ibilbiderik egingo zuenik. Baina esan dezaket azken egunetan zantzu batzuk ikusten nituela faboritoen artean nengoela pentsatzeko.

Zer nolako zantzuak?

Felipe Juaristi epaimahaian egongo zela jakin nuen, eta bera izan zen Autokarabana Espainiako Sari Nazionalera [narratiba arloan] hautagai gisa aurkeztu zuena, Katixarenarekin batera [Katixa Agirreren Habitat]; Javier Rojo ere epaimahaian zegoen, eta berak deitu zidan udaberrian Kritikaren Saria eman zidatela jakinarazteko. Horrez gain, Pamielako lagun ba-

tzuek esan zidaten aukera handiak zituela nire nobelak.

Zer iritzi duzu epaimahaiak zure lanaz esandakoaz?

Ni bat nator epaimahaiak esan duenarekin. Baina hori esan eta gero, esango nuke sari bat irabazteko horixe behar dela hain zuzen: epaimahaiarekin bat etortzea, edo epaimahaia bat etortzea zurekin. Seguru nago beste norbaitek irabaz zezakeela beste epaimahai batekin.

Bai kontatzeko modua eta bai pertsonaia nagusia ezohikoak dira euskal literaturan, eta eman dute zer esana.

Nire ustez nobela honetan dagoena oso ohikoa da gutariko askok irakurtzen eta preziatzen dugun literaturan. Horretan ez dut uste batere nobela berezia denik. Euskal literaturaren kontestuan, ezohikoa dela? Berdin dit. Esango nuke agian ezohikoak besteak direla.

Idazle sentitzen eta idazleago izaten lagunduko dizu sariak?

Ni kazetaria naiz eta hizkuntza da nire lan tresna. Nire lanaren proiektzio naturala da nobela hau, nire lanaren prolongazio ia-ia beharrezkoa, zerbait aportatu nahi izanez gero behintzat. Hizkuntzaren alde -batek baino gehiagok kontra esan beharko nukeela pentsatuko du- egitea dagokidan

zerbait dela iruditzen zait. Idazlea naizen edo ez, berdin dit.

Liburua gaztelaniara itzulia duzu. Argitaratzeko aukerarik edo asmorik bai?

Felipe Juaristik udaberrian deitu zidan, gaztelaniazko itzulpena egiteko eskatzeko, nobela Espainiako Sari Nazionalerako hautagai gisa eramango zuela-eta. Baina itzulpenak uztailaren 15erako bukatuta behar zuen. Eskerrak ordurako itzulpena hasita neukan! Urtarrilean Bernardo Atxagak sugeritu zidan itzultzen hasteko, eta orduan zerbait egiten hasi nintzen. Horri esker entregatu ahal izan nuen itzulpena garaiz. Lan gogorra izan zen, eta irailean lana berriro begiratu dudanean ikusi dut itzulpena eskasa dela. Orain berriro hasi naiz, orrazten, estilo baten bila. Baina oraingoz ez dakit argitaratuko dudan. Ez dut inongo segurtasunik liburu honen erdal argitalpenaz.

Euskarazko narratibaren munduan txoko bat zeureganatu duzu. Zer iritzi duzu egungo euskal narratibaz?

Hizkuntzaren gainean daukadan berbera, neurri batean. Oñatiko gure haurtzaro erabat erdalduna gogoratuta, gaur egun Oñatiko plazan zein hizkuntza den nagusi jabetzen naizenean mirakulu bat iruditzen zait gaurko egoera. Literaturari buruz, ez dut gauza bera esango, ez baita gauza bera. Baina badira paralelismoak. Karmele Jaio, Irati Jimenez eta Mikel Peruarenaren nobelak irakurri ditut, adibidez, azken hilabeteotan, eta bikainak iruditut zaizkit. Badira bikaintasuna erakusten eta adierazten duten lanak.

Fermin Etxegoien Euskadi literatura sariduna, Donostiako Kursaalean

Fermin Etxegoieny

Milesker... Dedico este premio a todas las personas que hablan en euskera, y advierten el esfuerzo que ello les supone, por razones muy variadas.

Este libro habla, entre otras cosas, de la impotencia... y también de la inseguridad, de sentirse inseguro... Hay un protagonista principal que vive seguro... “lingüísticamente”, porque su vida transcurre sobre todo en castellano, o español... y considera casi imposible que desde un idioma minorizado, como es el euskera, que todavía no ofrece grandes seguridades... se pretenda que alguien como él –nuestro protagonista principal- abandone su seguridad lingüística para vivir... la vivencia insegura del euskera.

Pero hay otra protagonista –también muy principal- que “ve” eso que ocurre en nuestro mundo, y que tiene la intuición de que sí; de que ante todo hay que dar seguridad a la gente, a toda la gente. Algo que, en apariencia, persiguen los gobiernos considerados “avanzados” de nuestro tiempo. Utilizando para ello, incluso, medios subliminales... que quizá sean mucho más poderosos, ahora, que las viejas consignas o el adoctrinamiento explícito.

Ari al da gobernu berri hau “segurtasunik” ematen euskaldunoi... besteak beste, modu “subliminal” horiek erabaliz? Behar bada... Izan ere, ari bada... gu ez gara momentuz enteratu.

Lagun asko ditut eskerrak emateko moduan; nik haiei eskerrak emateko moduan. Urte

hauetan nirekin bizitza konpartitu duten eta inspiratu nauten pertsonak dira, eta haietariko batzuk –asko- badaude nobela honetan. Halere izen bat aipatu nahi dut, bere euskalduntasuna hain izan zait-eta “eredugarria” bera ezagutu nuenetik. Joxe Angel Irigaray lagunaren izena nahi dut, bereziki, ekarri foro honetara.

Eskerrik asko denei.





Tronuan eseri berrian, sultan Babur-ek jauregiko lorategian kurtisauak bildu, eta populuari zazpi eguneko festa eginen ziola opari iragarri zien. Visir al-Khasr, aldiz, honela mintzatu zitzaion:

—Oi sultan urosa! Egiozu populuari liburu bat opari, Profeta eta lau «Kalifa Zuzenen» gaineko istoriak, errege handien balentriak eta gizon saildunen egitateak konta ditzakeena eta «Babur-en Liburua» dei daitekeena.

Lorategi hartan, beste txori eta hegaztien artean bazen papagaio bat, visir mintzatu-eta txilio egin zuena: «Babur-en liburua, Babur-en liburua».

Sultanek irri egin zuen, gogotik iragan zitzaizkion tipitatik irakurritako istorioak: Rustan-en balentriak, Elefantearen Eguna, Sindbad-en bidaiak eta beste.


Jakitsuak bildu eta lanean jarri, bi urteren buruan Babur-ek liburua eduki zuen bere eskuetan. Visir al-Khasar-ek iragarri bezala, fortuna onarekin emanen argitara, non gaur egun ere laudatzen bahitute historiagileek; bai ordea, gutik daki liburua Babur-en kultura dela, non populuak Tuti Namek deitu zuen, hots, «Papagaioaren Liburua».

Kondagintza 17
Hizkuntza Euskara
2010.urtea
168 or.

ISBN: 978-84-7681-642-4

Jose Enrike Urrutia Capeau (Iurreta, 1954)

Lanbidez kazetaria, egun telebista kritikaz arduratzen da Berria egunkarian. Era berean, «Euskadi Gaztea» irratiari Ekaitz Perfektua saioa egiten du, Bilbo Hiria irratiak bost urtez arduratu ostean. Telebistan ere hainbat saiotan ibilia dugu gidoilari legez («Katu Kale», «Doctor Livingstone Supongo», «Ciudadanos», «Lau Haizeetara», «Kalaka», «Anitzele»...). 2004an *Neurona eta Zeurona* saiakera kaleratu zuen Pamielan eta 2009an *Autokarabana* eleberria.



Assilah-ko eroa. Idazleen baitako Scheherazade

Bere gogoaren arabera idazten duen egile dugu Urrutia Capeau, ez modei, ez merkatu eskaerei men egin gabe. Iruzkin hau egin nion atzo, Berrian, haren azkeneko ipuin liburuari.

Bixente Serrano Izko. 'Berria'
berria.info/blogak/



«¿Conquista, anexión, unión o incorporación? ¿Española o castellana?». A pesar de que han transcurrido cinco siglos, los acontecimientos ocurridos en Navarra entre 1512 y 1529 continúan siendo objeto de agrios debates y de encontradas interpretaciones. Sin duda, quinientos años después, siguen pesando más los sentimientos del presente que el conocimiento del pasado.

En este libro el autor nos presenta, tras nueve años de investigaciones en archivos y bibliotecas de varios países, una relato de la guerra de conquista visto desde Navarra, completo en cuanto al desarrollo de los acontecimientos, contextualizado política y mentalmente en su época, ponderado en cuanto a la trascendencia de los hechos y centrado en lo que hicieron los navarros de a pie durante aquellos decisivos años. Y es que en este largo y violento proceso se imbrican, a grandes rasgos, dos hechos históricos complejos: una guerra civil de corte medieval que divide a los navarros y una guerra internacional de corte moderno que enfrenta a las dos grandes potencias europeas de la época: España y Francia.

El resultado es conocido. Tras diecisiete años de guerra, Navarra no sólo dejó de ser un estado independiente sino también dejó de ser un único reino. A partir de 1527, la Alta y la Baja Navarra siguieron caminos diferentes como consecuencia de esa conquista militar que supuso un trauma para la generación de navarros que la vivió, un tabú para las que la siguieron y un motivo más de enfrentamiento para los navarros de hoy en día.

Ensayo y Testimonio nº 106
Idioma Español
Año 2010
424 páginas

ISBN: 978-84-7681-653-0



**Iñaki Sagredo
entrevista a Peio
Monteano sobre su
último libro.**

Lista de reproducción:
<http://www.youtube.com/user/pamielaweb#grid/user/A2F797168479DBD9>

Peio J. Monteano Sorbet (Villava)


El villavés Peio J. Monteano Sorbet se licenció en Geografía e Historia en la UNED, (1992) tras obtener el Premio Nacional Fin de Carrera de esa universidad. Posteriormente se licenció en Sociología (1997) y se doctoró en Historia (1999) en la Universidad Pública de Navarra-Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Ha sido profesor en la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea y en la UNED. Desde 2007 es Técnico Superior del Archivo Real y General de Navarra.

Varios de los libros que ha publicado se enmarcan en el campo de la *historia local*: *El Señorío de Arre* (1992), *Investigaciones sobre historia de Villava* (1994), *La Villava del Renacimiento* (2004) – ganador del I Premio de Investigación Sancho el Sabio- y *Cintruénigo durante 'El esplendoroso siglo XVI'* (2008).

Con un marco cronológico y geográfico más amplio, Monteano es autor de *Los navarros ante el hambre, la peste, la guerra y la fiscalidad. Siglos XV y XVI* (Universidad Pública de Navarra, 1999) –síntesis de su tesis doctoral- y de *La Ira de Dios. Los navarros en la Era de la Peste (1348-1723)* (Pamiela, 2002), así como de numerosos artículos científicos y divulgativos sobre la población navarra de los siglos XIV, XV y XVI. También como sociólogo ha realizado diversos trabajos y publicado varios artículos.

Desde 2002 su campo de investigación histórica se ha centrado en el periodo de la Conquista de Navarra, sobre el que ya trabaja en otros dos libros





**Álvaro Baraibar Etxeberria
(Pamplona, 1970)**

Es doctor en Historia por la Universidad de Navarra con una tesis que fue publicada con el título *Extraño federalismo. La vía navarra a la democracia, 1973-1982* (Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madrid, 2004). Tanto en el citado libro como en otras publicaciones se ha tratado sobre el problema de la identidad, el análisis de los discursos políticos y, concretamente, la evolución del «navarrismo» durante el franquismo y la transición. Algunos de sus últimos trabajos han girado en torno a la construcción de los discursos de la identidad en Euskalherria a partir de los símbolos, así como a la relación entre memoria e historia.



Ensayo y Testimonio nº 107
Idioma Español
Año 2010
184 páginas

ISBN: 978-84-7681-643-1

En las siguientes páginas se muestra cómo evolucionaron los discursos sobre la identidad en la historia reciente de nuestra comunidad. Para ello, se ha seguido la evolución contemporánea del elemento simbólico de mayor significación e importancia: el escudo de Navarra.

Tras la muerte de Franco, los símbolos tenían que democratizarse, dado que, especialmente en el caso del escudo, éste aparecía rodeado por la laureada que el dictador otorgó a Navarra por su contribución al golpe militar y a la victoria de los rebeldes en la guerra civil. Así, el cambio del escudo y de otros símbolos estaba lleno de implicaciones, tales como la consideración debida a las víctimas del golpe militar del 36 y de la dictadura franquista.

El relato del proceso llevado a cabo con los símbolos de Navarra sirve para entender mejor los debates de la identidad que han marcado y siguen marcando de forma intensa la vida pública de nuestra comunidad. Tanto en la polémica Navarra-Euskadi —que tuvo mucha influencia en la transición a la democracia—, como en el debate sobre la recuperación de la memoria —reabierto con fuerza en los últimos años del siglo XX— ha estado presente el escudo de Navarra. También son especialmente significativos los discursos construidos en el último siglo sobre la identidad del antiguo Reino, a partir de mito de las «cadenas».

Obras Completas de Jimeno Jurío

José M^a Jimeno Jurío
(Artajona, 1927; Pamplona, 2002))

Las Obras completas de José María Jimeno Jurío son la recopilación más ambiciosa que se ha llevado a cabo de la obra de un autor en el Estado. 62 tomos, el último de ellos con los índices onomásticos y generales de toda la obra, y los dos primeros dedicados a la biografía de nuestro autor y a la recopilación de todas sus entrevistas, obituarios y artículos de opinión a él dedicados.

Esta enorme empresa editorial, sin precedentes en Euskal Herria, únicamente se ha podido conseguir con el concurso de las tres entidades editoras: Udalbide, Pamiela y Euskara Kultur Elkargoa.



La historia no puede ser
tapiz ocultador del tremendo drama
vivido por un sector
Drama inenarrable para las víctimas
e imposible de comprender
para el verdugo.

Drama de quienes alimentaron
la esperanza en la libertad, la paz,
el respeto a la dignidad humana
y la democracia,
lucharon para construir una sociedad
donde todo esto fuera realidad,
y vieron truncados su ideal
y sus vidas.

Drama de viudas y huérfanos desposeídos,
aterrorizados, escarnecidos, humillados
forzados a sufrir la "paz" del vencedor.

Jose Maria Jimeno Jurio



erlea~3

1.700en aldizkaria

erlea~3 zenbakia • urria • 2010



Hirugarren zenbaki honen atmosfera nagusiak Afrikara garamatza, Aljeria eta Magreb protagonista direlarik. Bestalde, Ipar Euskal Herriari ere ahotsa ematen dio Erleak, eta aldizkarian agertzen diren hainbat idazlek -Piarres Aintziartek, Jean-Louis Davantek, Txomin Peillenek- bi errealitate horiek, Iparralde eta Aljeria, lotzen dituzte.

Mohamed Xukri idazle marokoarrak (1935-2003) leku berezia du zenbaki honetan: 2003an, Miel A. Elustondok egin zion elkarrizketa bat argitaratzen da, baita Joxemari Iturrালের artikulu bat ere, eta Ogi hutsa Xukriren nobelaren hasiera, arabieraz eta euskaraz.

Erleak ekartzen digun beste opari bereziak Joseba Sarrionandia izena du: Tuaregen poesiaren amaiera artikulua dago, idazleak udazkenean aterako duen liburuaren zatia.

Aurkibidea

AZALA, ILUSTRAZIOAK ETA MARROKIERA
Gonzalo Etxebarria



ABANTZIA, ILUSTRAZIOAK
Anne Bearick Zaldu Ene



Emesto Valverde Erramun Landa



David Apraia
Elkar argitaletxea
Pantxika Maitia
Felix Ihargutxi
Zaldieroa
globalkultura.net
kzgunea.net
Dani (Argia)
Jose Luis Agote

ERRETRATUAK
Aitor Bayo (X. Montoya)
Marc Campà (B. Sarasola)
Zaldu Ene (L. Otaegi)
M. A. Elustondo, K. Navarro,
J. L. Zabala

In memoriam. BRUCE LAXALT	2
Pentagrama. KARMelo LANDA (ILUSTRAZIOAK: ERRAMUN LANDA).....	5
MINTZAIKAK ETA GU: Pobrean Unibertsitatea. ARANTZA URRETAZKAKA,	9
Itzultzaileei galdara: MANU LOPEZ GAZEN, KORO NABARRO, XABIER OJARRA, FERNANDO REY, JON ALONSO, KOLDO BIGURI,	11
KOMIKIA: Xaxa nire karia. ZALDIEROA	16
IPUINA. Vous me faites peur. LOURDES ONEDERRA,	17
IPUINA. Haur jolasak. XABIER MONTOLIA,	19
IPUINA. Orbaina. EIDER RODRIGUEZ,	25
Edorta Jimenezen poema. Poemaren atzeko aldea, «Hiri sekakua».....	29
ELKARRIZKETA. Mohamed Xukri. Idazle marokoarra. MIEL A. ELUSTONDO	32
Mohamed Xukri idazlearekin Toledon. JOXEMARI ITURRALDE.....	39
Vicente Ameztoyren objektuak. BERNARDO ATXAGA,	41
Vicente Ameztoy. JOSEBA LUZURIAGA.....	50
Hil da Bixente Ameztoy. BERNARDO ATXAGA.....	53
Biziaren bazterrean. KOLDO IZAGIRRE.....	54
Hiriburuko karakoila. PIARRRES AINTZIART,	60
Tuaregen poesiaren amaiera. JOSEBA SARRIONANDIA.....	64
Jean-Louis Davanten poema. Poemaren atzeko aldea, «Tauggaureteko dorretiko».....	75
ELKARRIZKETA. Txomin Peillen, Aljerian frantses armadaren erizain, MIEL A. ELUSTONDO.....	79
Ene erresuman bidaiatz. LUCIEN ETXEZAHARRETA,	85
Iparraldeko hiru postal hurbiltasunetik. JABIER MUGUELZA.....	88
Buruxkak: ehun urte bakardadean. KEPA AITONAGA.....	90
FOROA. Azkenaldiko liburuak. A. GALARRAGA, E. EZKERRA, L. OTAEGI, K. AITONAGA, J. ITURBE.....	94
URREZKO LIBURUTEGIA. U. ELUORRAGA, B. SARASOLA, F. ETXEGOLEN, A. GALARRAGA.....	103
Emakumeen erretratuak. PATXI EDZAGA.....	107
Liburua aurkezteko orduan. PEDRO ALBERDI.....	111
Pello Otxotekoren poema. Poemaren atzeko aldea, «Ismaelen balada».....	114
IPUINA. Ospa. JUAN LUIS ZABALA.....	116
AHOTSA PAPEREAN. Erderaz ikasten Bilbora krieda. Braulio Pujana,	121
Antonio Zavalaren editore lan eskerga. FELIX IHARGUTXI,	123
Felipe Juaristiren poema. Poemaren atzeko aldea, «Historiaren interpretazio bat».....	126
GORDETA ZEUDEN TESTUAK. «Bi adiskide». ARNAUT ABADIA.....	128



Nueva Documentación del Archivo General de Simancas referida a las obras llevadas a cabo en la fortificación de Amaiur entre los años 1637-1640

Tras la publicación del libro sobre el castillo de Amaiur su autor ha continuado investigando sobre la documentación referida a las obras que se llevaron a cabo entre 1637 y 1640. Los nuevos documentos permiten interpretar mejor los restos arqueológicos que van apareciendo en las diferentes campañas llevadas a cabo por la Sociedad de Ciencias Aranzadi, y complementan a los ya publicados en el libro. En lo fundamental confirman las dataciones allí planteadas y permiten concretar mejor los objetivos para seguir descubriendo nuevos elementos constructivos en el entorno no excavado del castillo.

Los interesados pueden descargar el pdf que contiene los resúmenes de los contenidos de la documentación y las referencias correspondientes en el Archivo de Simancas.


**Iñaki Sagredo Garde
(Irún, 1967)**

Desde 1997 investiga sobre los castillos del reino de Navarra en todos sus territorios históricos. Fruto de ese trabajo ha publicado el libro Navarra, castillos que defendieron el Reino, tomo I: De Laguardia a Foix, y del Moncayo al Goierri (Pamiela, 2006); tomo II: Los castillos de Sancho III el Mayor en Alto Aragón, Sobrarbe y Ribagorza (Pamiela, 2007), así como Castillo de Irulegi (Concejo de Aranguren, 2006). Ha publicado numerosos reportajes sobre castillos navarros en diferentes medios de comunicación.

<http://www.pamiela.com/deskarga/Simancas-Amaiur.pdf>

El castillo de Amaiur de Amaiur

Iñaki Sagredo Garde




Precio24,00 €
ISBN 978-84-7681-585-4
Ganbara - Castillos de Navarra
Idioma Español
Año 2009
166 páginas
320 fotografías, mapas y croquis en color

El castillo de Amaiur a través de la historia de Navarra

Este libro ofrece una perspectiva diferente de la conquista de Navarra a través de uno de sus hechos más señalados, la batalla de Amaiur del año 1522, y de los testimonios de sus protagonistas: Jaime Belaz Medrano, su hijo Luis, el abad de Urdax, el virrey marqués de Miranda o los señores de Xabier, hermanos de Francisco de Xavier, que defendieron valerosamente la causa de los reyes legítimos de Navarra frente al ejército del emperador español Carlos V.

El libro recoge los hechos más reseñables desde la Alta Edad Media hasta la desaparición del castillo en el siglo XIX, la construcción del monolito y la posterior recuperación arqueológica en pleno siglo XXI. En este apartado, salvando la falta de informes técnicos públicos, ofrece una aproximación sobre cómo pudo ser el castillo apoyado en la importante documentación manejada, parte de la misma muy poco conocida.

Iñaki Sagredo ha llevado a cabo un trabajo concienzudo en los archivos de Simancas, Segovia, del Servicio Histórico Militar y el de Cartografía histórica –ambos en Madrid– y el Archivo General de Navarra, o indagando



en archivos europeos que podían albergar información pertinente.92-93Fruto de todo ello es este hermoso libro, que combina las características de la mejor divulgación –con la amenidad de sus textos y la belleza de sus imágenes y mapas, algunos sorprendentes–, junto con los completos apartados con documentación original. Sin duda, es éste el trabajo más completo publicado hasta ahora sobre la historia y la vida del castillo de Amaiur.

